

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

354/2019 Foru Agindua, uztailaren 24koa, onesten duena Zuzeneko Zergen Zerbitzuari atxikitako Sozietate eta Ez-egoiliarren gaineko Zergen eta Atxikipenen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1085.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko apirilaren 12ko 194/2019 Foru Aginduaren bidez egindako deialdia ebaztea

Apirilaren 12ko 194/2019 Foru Aginduaren bidez, Zuzeneko Zergen Zerbitzuari atxikitako Sozietate eta Ez-egoiliarren gaineko Zergen eta Atxikipenen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1085.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko deialdia egin zen. Foru Agindu hori 2019ko apirilaren 26an argitaratu zen ALHAOn (49. zenbakia).

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, Balioespen Batzordeak proposatzen du lanpostu hori Mikel Ibarrondo Hernándezeri esleitzea.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hor. Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko atxikitzea Mikel Ibarrondo Hernández Zuzeneko Zergen Zerbitzuari atxikitako Sozietate eta Ez-egoiliarren gaineko Zergen eta Atxikipenen Atalaren buru lanpostuari (kodea: 1085.001).

Bigarrena. Ezin zaio uko egin esleitutako lanpostuari eta, lanpostuaz jabetu ondorengo bi urteetan, ezin izango du parte hartu lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan, baldin eta funtzionarioak lanpostu hori galtzen ez badu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 50. artikulua 3. apartatua eta 4. apartatuaren a) letran xedatutakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena. 2019ko irailaren 9an utziko du jatorrizko lanpostua.

Laugarrena. 2019ko irailaren 10ean jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan —urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 24a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR